

KULTURA DANTZA SOLTEKO ESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
KIROLA ARRATE AZKONA GIPUZKOAKO TXAPELDUN HIRUKOITZEAN

El piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 82. alea 2004ko urtarrilaren 16a

Sakabanaketa politikaren oinazepean preso





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Limpiezas Trejo

Errekalde 30 behea 20590 Soraluze Telefonoa 943 75 25 57 Faxa 943 75 25 56

“Garbiketiarekin lotutako lanak egitten dittugu, gehixenbat garbiketa industrialia da egitten doguna, lurrak garbittu, makinak, buleguak...”

Noiz eta zeinek sortu zeban enpresia?

Enpresia 1991. urtian sortu zan, hasieran ni bakarrik hasi nitzan lanian.

Zenbat pertsonak egiten dozue lan bertan?

15 pertsona gare lanian oin momentuan, Soraluze, Elgoibar, Ermua eta Eibarko pertsonak osatzen dogu enpresia.

Zein motatako lanak egiten dittuzue?

Garbiketiarekin lotutako lanak egitten dittugu, gehixenbat garbiketa industrialia da egitten doguna, lurrak garbittu, makinak, buleguak...



Aldaketarenbat egin dozue enpresia sortu zanetik?

Bai, juan zan urteko martxuan ofizina berrixak egin genduzen.

Zein inguruan egitten dozue lana?

Hemen inguruan ibiltzen gara, Debagoiena eta Debabarrena eta Durangaldia baitta. Gero kanpotik be deitzen doskue, baina horrek lan puntualak izaten dira.



Bisitan

GORKA SALABERRIA "TXAKARRA"

Goizeko laurak, jaikitze ordura heldu da, iratzargailua deika daukat dagoeneko. Pozarren-jaiki naiz ordu batzuk lo egin eta gero. Egun luze baina ederra izango da gaurkoa, aspaldiko partez bisitan noa. Duxta bat hartu eta Madril aldera, 420 kilometro luze egin behar gaez.

Burgosera heltzean eguzkia ere aterata eta ez da gutxi. Ez du asko iraungo gure pozak, urrutira txapelokerrak ere ageri dira eta. Agian ez gaituzte geratuko, ze inozoak, Donostiako matrikula eta guzti Espainia aldean, oso arraroa izango litzake altoa jotzeko joaten uztea. Autotik irten eta "a donde van ustedes", gure jomugaren berri esan bezain azkar aldatu dute gurekiko jarrera. Bukatu dira "ustedes" eta horrelako kortesiazko hitzak. Betiko galdera ironikoak hasi dira, bere mehatxu eta irainez apainduta. Noski, autoa ere ezin utzi arakatzeko, piezaka desmontatzea bakarrik falta zaie. Nire barnerako "kabroiak" esaten hari naizela, "podeis iros, que tengais un buen viaje" esanda bidali gaituzte, asko inportako zaien arren guri zer gertatu. Ordubete luze pasa ostean kafetxo bat hartzeko astirik gabe zuzen Alcalara, ez zaigu denbora asko geratzen, abiadura hortan istripurik ez izatea erretzen, inoiz gogoratzen ez dudana jainkoa buruan daramadala, Asier eta Iñaki ere buruan daramatzat, horrelako egun batez

erail zituen eta dispertsioak.

Korrika eta presaka heldu gara gartzelara, eraikin handi eta ileak tente jartzen dituen horietakoa da gartzela, inguruan ezer ere ez du, desertu baten inguruan eraikitako mustro ikaragarria da. Segituan deitu gaituzte, ia bisita gabe geratu gara. Funtzionariaren begiradak ere ez dira onenak, goitik behera begiratzen digute gu baino gehiago balira bezela.

Dar-darka sartu naiz barrura, presoak ikustean pozez bete zait bihotza, irrifartsu dago, inoiz baino ederrago. Barrura heltzean galdeketa berezi bat hasten da; "zer moduz bidaia?, zelan herritik?...". 40 minutu motzak egiten dira barruan dagoenarentzat, baita guretzat ere. Kabinak ere ez dira aldatuko, zikinak baino zikinagoak, beldurtzeko moduko beroa...

Denbora azkar joaten da gustora zaudenean eta hala izan da gaur ere, "besar-kada bat danendako!" esanaz doa berriz barrura, malkoak ere aterata zaizkit, bera barrura eta gu hemen, presoan alde inoiz nahikoa egiten ez dugun kezkarakin. Oraindik ez da dena bukatu, bueltatu ere egin behar dugu eta ez gaude ondoko herrian.

Noiz arte horrelako kontakizunekin?

EUSKAL PRESOK

EUSKAL HERRIRA

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. urtebarri on!. Stop. ona bada. Stop. bestela animo asko. Stop. egiza esateko lengo antzera jarraitzen dogu ez?. Stop. presoak eta senideak antzera xamar. Stop. gero eta txarrago esan doskue-nez. Stop. Soraluzek buru belarri hirigintzako lanetan murgilduta. Stop. bide eta zubigintzan, errezago joateko eta etortzeko. Stop. nondik eta nora jakin gabe agian baina ze arraio. Stop. garrantzitsuena bidea da. Stop. ziniak etxoin deixela. Stop. kulturarekin batera (lagunak dira eta). Stop. Zorionez barrixak be badira. Stop. bestela jai genduke. Stop. argazki zaharrez betetako aldizkari bat etara biharko genduke. Stop. eta ez litzake erreza. Stop. bakoitzak bere etxian "ondo" gordeta dauketa. Stop. gauza asko dator pil-pilean urte barrixarekin. Stop. kultura ekitaldixak esaterako. Stop. noski, ez dira "inportantienak". Stop. baina bizitza poztan dabe eta bada zeozer. Stop. abesbatza Parisera doia. Stop. eta gerturatu jakue nahikua lagun. Stop. dantza solte eskola sortu da. Stop. nahi dabenak ikasi. Stop. kiroldegixan arduradun barrixak dare. Stop. (instalakuntzak ez, instalakuntzak berdin jarraitzen dabe). Stop. Arrate lainoetara salto egin dau barriz. Stop. eta gu?. Stop. gu ilargian. Stop. urte berrixarekin amets egiten. Stop. hau, hori, hura... Stop. badaukagu nahikua asmo urte barrirako. Stop. egin amets egunerok!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Soraluzen 4 preso politiko daude herritik ehundaka kilometrotara dauden Espainiar estatuko espetxeetan sakabanatuta.

Soraluzeko Etxerat taldea, preso en senide eta lagunak osatzen duten taldea da. Oraindela urte asko dihardute preso en eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatuz.

Zorion agurrak



Haritz Albusua
Urtarrilaren 10a
12 urte
ZORIONAK!!
Orain arte bezain
kirolari eta
JATOR jarraitu!
Etxeak..



Nerea Atxotegi
Urtarrilaren 18a
ZORIONAK!!
Potxola!!

Etxekuen partez.




Amaia Agirre
Urtarrilaren 22a
29 urte
ZORIONAK!!
Ondo ondo pasau
urtebetetze eguna!
Etxekuen eta Pil-pile-
anekuen partez.



Jon Mendizabal
Urtarrilaren 11a
23 urte
Etxeko umetxuari
ZORIONAK!!
Etxekuen partez.



Eva eta Maria Vergel
Urtarrilaren 8a
6 urte
ZORIONAK!!
Asko maitte zaituztegu bihurrixok!
Etxekuen partez.



Jon Basauri
Urtarrilaren 5a
28 urte
ZORIONAK!!
Jon zorionak,
urte askotarako,
Pil-pilean, gu! (Haikua)

Gutunak

Kaixo Soraluze

Zela aldatu leiken bizitza bapatian!
La ostia!

Burdin eta horma honen atzian egun guz-
tiak berdinak dira!

Egunero esnatzen naizenian, horman
jarrira dauzkaten senide eta lagun
argazkixak begiratzen ditud. Orduan nere
bihotzak taupada biziz EUSKAL HERRI-
RA egiten dau hegan! Orduan nere pen-
tsamenduak zuekin dare! Orduan zuen
onduan sentitzen naiz! Orduan.... Baina
nere eguneroko amets honek gutxi irau-
ten dabe! "recuento" entzun eta zuengan-
dik urrun naguala konturatzen naiz. Eta
ze gogorra dan! hainbeste maitte dozun
jendia bapatian ezin muxukatza, ezin
heltzia, zuekin ezin hitzegitia... ametsa,
amets gaizto bihurtzen da!
Baina euskaldunak gogorrak izateko jaio
gara, eta gogor jarraituko dogu! Gogor
jarraituko dot, zuegaitik, nere herrixagai-
tik!

Ondo dakixe gure herrixa ukatzen dabe-
nak eta Euskal Herriko benetako beharrei
uko egiten dotsenak, Euskal Herrixa ez
dala libre izango euskaldun guztiak libre
izan arte, eta Euskal Herrixak ez dabela
bakerik biziko libre izan arte! Horrela
izan da beti!

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA!

Regina Maiztegi
Euskal preso politikoa.
Soto del Real (Madril)
2004-1-11



LAN ESKAINTZAK

Kirol Kazetaria

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Kooperatibak, Kirol informazioa lantze-
ko kazetaria behar du.

Eskatzen da: Euskaraz idazten maila
ona, Ordenagailuak erabiltzen jakitea
eta gidatzeko baimena eta autoa edu-
kitzea.

Eskeintzen da: Lan kontratutua,
Etorrizun handiko proiektuetan partai-
de izatea eta lanpostua lortzen ez
duenak Goiena multimedia enpresaren
(prentsa idatzia, irratia, telebista eta
telematika) lan- poltsa osatuko du
Interesatuok bidali curriculumua, urtari-
laren 18a baino lehen, ondolo helbide-
ra: Goiena komunikazio zerbitzuak,
nafarroa etorbidea 2_20500 ARRASA-
TE edo ibengoa@goiena.com

IKASTAROAK

Euskal Jolasak

16 orduko ikastaroa, urtarrilak 24,31
eta otsailak 6an. (Elgoibarren)
Soziolinguistika, begiraleen formazioa
haurren euskaraganako jarrera bul-
tzatzeko, Euskal jolasa eta esperien-
tzia praktikoa landuko dira.
Ikastaroaren prezioa 60 eurokoa da.
Interesatuok deitu Elgoibarko Izarra
elkartera, 943741626.

E.H.U

Euskal Herriko Unibertsitateak
Espresioegunea izeneko programaren
barruan ikastaro ugari antolatu ditu
Donostia eta Bilboko kanpusetan.
Musika Zinea, yoga, malabarrak, an-
tzzeria, euskal dantzak, argazkigintza,
dantza garaikidea, zinema, etab.

Epea:otsailak 13



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@teletel.net
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

Telefonia 75 24 09

ARRANO tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"



ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Zer irizten dotsazu?

Aurten Espainiako eta Europako hauteskundiak izango dira. Euskal Herrian proposamen politiko asko dago mahai gainean; Ibarretxe Plana, Bergarako Proposamena, Nafarroa Bai koalizioa... Espainian, estatutuak berrizteko eta konstituzioa aldatzeko eskaera ere zabalduz doa; EAE, Katalunia, Galizia...

2004an Euskal Gatazka konpontzeko aukerarik ikusten dozu?



Ikerne Txurruka
17 urte
Ikaslia
 Nahiko zaila ikusten dot hemengo egoeria konpontzia, baina esperantzia bada go nahi doguna lortzera helduko garala. Soluzio bat lortzeko bidia euskaldunak biltzia da eta herrixari hitza emotia.



Pedro Hernandez
57 urte
Tornillerua
 Aurten konpondu biharko litzake gatazka, baina horretarako partidu politiko danak elkarrekin hitzegiten hasi biharko leukie, ezer ezkutau barik elkarri.



Unai Larreategi
24 urte
Langabetua
 Borondate politikua da hemen bihar dana. Horretarako gatazka konpontzeko lan egin bihar da eta ez partiduan onerako bakarrik.



Alodina Ballesteros
55 urte
Etxekoandria
 Espero dot gatazka konpontzia gure onerako. Ni ez naiz hemengua baina onena nahi dot herri honendako eta ia gauzak ondo egiten diran.



Elena Eguren
41 urte
Kamareria
 Ez dakit gatazka konponduko dan. Abertzaliak biltzia ondo dago, bide hau jarraitu ezker gauzak hobeto jungo dira. Madrildik ikusiko dabe behintzat gehiengua garala.



Jabier Garate
38 urte
Instalatzaila
 Ez dot uste ezer konponduko danik aurten, bidian jarri konpontzeko bai, baina dana konpondu ez. Nafarruan emon dan pausu hori politta da, holako bidietatik jarraitu bihar da, abertzale guztiak batzen minimo batzuetan.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



EROSLE

Kontsumo kooperatiba

Tel.: 943 75 13 45

Jolastokiaren konponketa lanak



Ikastetxeko lanak otsailaren erdialderako amaituko dituztela aurrikusten dute arduradunek. Jolastokiko horma konpontzeko lanak hasiko dira gero.

Joan zen hilaren 18an, Plaentxi Herri Ikastetxeko jolastokiko horma egonkortzeko proiektua onartu zuen Udal Batzarrak, EAJren aldeko 4 botuz eta SAren abstentzioz (informazio falta argudiatuz). Proiektua, Ikerlur, Geologia eta Geoteknia etxeak prestatu du eta 103.530 euroko aurrekontua du eta Udala egingo da aurrekontuaren kargu. Proiektuaren barne aurreikusten diren lanen helburua, ikastetxe barrura ematen duen jolastokiaren euspen horma indartzea da batetik, horma nahiko egoera kaxkarrean dagoelako (hezetasun eta zartadurak eraginda). Bestetik, jolastokiaren gainaldean egingo den erreten baten bitartez, menditik datozen urak bideratuko dira, jolastokiaren gainaldearen eta jolastokiaren euspen horman bertan izaten den ur gaineztatzea eragozteko. Jolastokiko lurzorua konpondu eta estaltzeko egitasmoari dagokionean berri, Udala Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburu berriarekin bildu zen orain hilabete batzuk, eta bilera horretan lan hauei aurre egiteko Hezkuntza Sailaren dirulaguntza ezinbestekoa dela jakinarazi zioten sailburuari. Sailburuak bere aldetik bi lan hauen proiektuak bidalita koan aztertuko zituela agindu zien Udal ordezkariari. Aste honetan bertan,

Udalak aipatutako proiektuak bidali dizkio Hezkuntza Sailari bi aurrekonturekin, 164.500 eurokoa lurzoruari dagokiona eta 221.400 eurokoa jolastokia estaltzeko dagokiona. Horrekin batera, lehenbailen bilera bat egiteko eskaera ere egin diote Hezkuntza Sailburuari.

Bestalde, Ikastetxeko Zuzendaritzak adierazi digunez, Eskola Kontseiluak abenduan egindako bileran, ikastetxe aldaketaren inguruan dauden zenbait zalantza azaleratu ziren. Bate-tik, jolastokiko lurzorua konpondu aurretik ikastetxez aldatzeak eragingo dituen arazoak aipatu zituzten; "haurrak apurtutako eta putzuz betetako lur gainean jolastea" oso egokia ez dela eta aurrerago, jolastokiko lanak hasten direnean, "denbora luzez jolastokia erabili ezinean geldituko litzatekeela argudiatuz. Horrekin batera, Olatik Estaziora bitarteko lanak amaitu aurretik eta ondoren, ikastetxera iristeko izango diren zailtasun eta arriskuak ere aipatu zituzten.

Gai guzti hauek landu eta Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako haurrak ikastetxera aldatzeko data kontua adosteko, ostiral honetan bilera izan dute Ikastetxeko Zuzendaritzak eta Udalak.

Soraluze "Udalsarea 21" ean

Abenduaren 9an Udal Batzarrak egindako ez ohiko saioan, Udalak gehiengo onartu zuen (EAJ, EA eta SAren aldeko 8 botoz eta PSE-EE eta PPren 2 abstentzioz), Udalsarea 21 (Jasangarritasunerako Udalerriaren Euskal Sarea) osatzeko lankidetzaz hitzarmenari atxikitzea.

Abenduaren 15ean sinatu zen Eudelen, Foru Aldundiaren eta Ingurugiroaren Kudeaketarako Iñobe Elkarte Publikoaren arteko lankidetzaz hitzarmena. Hitzarmen honek, herrian Agenda 21 a bultzatzera behartzen ditu Udalak, udalerriaren garapen jasagarria sustatzeko ardura handiagoa eskatuz Udalei.

Begirale berria Ludotekan



Ludotekako langileetako batek "lanpostua uzteko nahia" adierazi ostean, Udaleko Hezkuntza Batzordeak datozen hiru hilabeteetarako pertsona bat kontratatu du. Pertsona hori lehenago osatua zegoen lanpostua bateko zerrendatik aukeratua izan da eta Edurne Unamuno soraluzetar gaztea da.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

**Hotzian eta beruan
jotako tornilluak**

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipirotiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Etxebizitzak botatzeko baimena

Joan zen asteleheneko Gobernu Batzordean, Udalak, 3 Jes 99 S.L. erakuntza enpresari, Gabolatx kaleko 4. eta 6. etxebizitzak botatzeko baimena ematea erabaki zuen. Enpresa honek, zahartutako etxebizitza horiek bota eta logela bakarreko eta bi logelako 16 etxebizitza berri egiteko asmoa azaldu dio Udalari. Udalak etxebizitzak eraiki ahal izateko, eremuaren azterketa geotekniko bat eskatu dio enpresari.

Bestalde, SAPA enpresak bere erai-kinaren zati bat etxebizitza eraikitzeko moduko eremu izendatu ahalko litzatekeen egindako galdeari erantzun dio. Udalak egindako azterketaren arabera SAPAko lantegiaren zubi ondoko eraiki-



naren lehen zatia da etxebizitzak eraikitzeko moduan legokeen eremu bakarra.

Emakume langabetuendako ikastaroak

Soraluzeko Udalak, Jaurlaritza eta Debege sarekin batera, herriko emakume langabetuei zuzendutako bi ikastaro antolatu ditu. Ikastarook emakume langabetuak informazioaren eta komunikazioaren zientzietan trebatzeko helburua dute, etorkizunearn arlo horretan lan egiteko aukera izan dezaten. Lehenengo ikastaroa "Bulego eta zerbitzuetako languntzailerena" da eta bigarrena "Linea bidezko prestakuntza, informatikako erabiltzaile tresnetan". Hilaren 16an amaitzen zen izena emateko epea eta dagoeneko 16 emakumek eman dute izena ikastaro hauetan parte hartzeko.

Zinea eraberritzeko proiektua

Udalak, 12.000 euroko aurrekontuarekin, Kiroldegiko zinea eraberritzeko proiektua egiteko eskatu zion urrian Eneka etxeari. Urtarrilaren amaierarako jasoko proiektua eta aurren zinea eraberritzea aurrirakusten da.

Hirigintza zinegotziaren liberazioa

Abenduaren lehenengo astean egindako Udal Batzarrak, Iker Aldazabal Hirigintza, Lan eta Zerbitzuetako zinegotzia egun erdiz liberatzeko erabakia hartu zuen. Oposizioko alderdiek aurka-

bozkatu zuten, erabakia hartzeko jarraitu den modua salatuz. Alkateak, "Soraluzen martxan dauden hirigintzako proiektuak kudeatzeko" erabat beharrezkotzat jo zuen liberazioa.

Erregetxea Esparru Arkeologiko izendatua dagoela ohartaraziz

Udalak Foru Aldundira Erregetxe-ko eremuan lur azpiko parking bat egitea aurrirakusten duen dokumentuari erantzunez, Foru Aldundiak Erregetxe-ko eremuaren balio etnografikoaz ohartarazten duen idatzi bat zuzendu dio Udalari.

Idatzi horretan, Udalak inoiz Erregetxean lurrazpiko aparkalekuak egiteari ekingo balio, lan hauen eragileak "proiektu arkeologiko bat" aurkeztu beharko lukeela adierazten da, non zundaketa zabal batzuk jaso beharko liratekeen lurrazpiko aparkalekuak egin aurretik.

Abesbatza Parisera joateko gertu



Ezoziko Ama Abesbatzak dagoeneko egin ditu prestakuntza guztiak Parisera joateko. Abesbatzako kideez gain beste hainbat soraluzetar ere joango dira eurekin (60 lagun inguru guztira). Urtarrilaren 21 gauean irten eta 25 gauean iritsiko dira berriz herrira. Parisen, UNESCOk antolatutako Abesbatza Arteko X. Jaialdi Internazionalen parte hartuko dute. Ondo pasau eta ondo kantau!

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

JAVIER ALONSO ZELAIETA
434 ZENB.KOL

HORTZ KLINIKA
MEDIKU ESTOMATOLOGOA

ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Sakabanaketa politikaren oinazepean preso

Soraluzen 4 preso politiko daude herritik ehundaka kilometrotara dauden Espainiar estatuko espetxeetan sakabanatuta.

Soraluzeko Etxerat taldea, preso en senide eta lagunek osatzen duten taldea da. Oraindela urte asko dihardute presoek eskubideak errespeta-tuak izan daitezzen eskatuz. Euskal Presoek euren espetxe zigorra Euskal Herriko espetxeetan betetzeko duten eskubidea aldarrikatuz eta sakabanaketa politikaren ondorioak salatuz. Hain zuen, duela egun batzuk bueltatu dira Euskal Herriko Etxerateko ordezkariak Europako sei hiriburutan presoek egoera salatzeke egindako bidaietatik.

Herriko presoek eta hauen senideek urtetan jasaten ari diren egoeraren eta sufrimenduaren berri eman nahi izan dugu ale honetan, euren ahotik jaso duguna agertuz.



Ostiralero ostiralero, urte guztian zehar, sakabanaketa politika amaitu dadila eskatzen dute Gila zubian Etxeratek deituta egiten den enkarteladan.

EGOERA GERO ETA OKERRAGOA

Etxerateko senideek azaldu digutenez, Euskal Presoen egoera Espainiar Estatuko espetxeetan gero eta okerragoa da. Horren adibide preso politikoei bakarrik ezartzen zaizkien zenbait baldintza berezi azpimarratu nahi izan dizkigute lehenik, "momentu honetan bizi den egoera ulertzeko lagungarri" izango delakoan:

- Legez preso guztiek dute espetxealdia euren jaioterritik gertu bete ahal izateko eskubide dute, "baina presoak ehundaka kilometrotara bidaltzen dituzte, senideak izugarritzko bidaiak egitera zigortuz".

- Legez, zigorraldi osoaren hiru laurdenak beteta zituen presoak, hirugarren

gradua lortu eta kalean behar luke. Kasurik gehinetan legea ez da bete. Azkenaldian hiru laurdenak beteta kalera aterata zeuden presoak berriz espetxeratzeari ere ekin diote. Joan zen urtean onartu zen lege berriak berriz, euskal presoak 40 urte arteko zigorra osorik bete dezaketete. European 20 urteko zigorra da mugatu.

- Legez preso guztiek dute bere zigorraldian zehar ikasketa, kirol jarduerak eta abar egiteko aukera. Ihaz Espainiar Gobernuak atera zuen lege batek euskal preso politikoei EHU-n matrikulatzea debekatu zien. Ordutik, UNED-en bakarrik matrikulatu daitezke eta batzuk horretan ere ez.

- Presoei lagunak bisitan joan ahal izateko istantziak bete behar dituzte. Az-

kenaldian gero eta istantzia gutxiago ematen dituzte, 3 hilabeterako 10 besterik ez. Horrek esan nahi du astean bisita bat betetzea ezinezkoa dela eta pisu guztia senideengan erortzen da. Senideen bisita asko astegunean jartzen ere ari dira. Horrek ondorio gogorrak dakartza. - Isolamendu luzeak, osasun atentziorik eza eta zigorrak eguneroko ogia dira Espainiar estatuko espetxeetan".

*"Pedro Josek hagineta-
pastarekin ixten ditu zeldako
hormako zirrikituak, mamor-
rorrik sartu ez dakixon"*

HERRIKO PRESOEN EGOERA

Herriko presoek egoeraren inguruan ere hainbat xehetasun azaldu dizkigute:

Pedro Joxe Etxeberria da espetxean urterik gehien daraman plazentziar preso. Lehenengo graduan dago eta egunean bi orduz bakarrik irten ahal izaten du patiora. Azken bost urteotan arratsaldero zeldan egoten da "txapeatuta". Bere sasoiari soziologia ikasketak amaitu zituen eta orain psikologia karre-
ra hasita zeukan arren, momentu honetan ez daki matrikulatuta dagoen ere. Hilerok ziegaz aldatzen dute eta "hagineta-
pastarekin zeldako hormako zirrikituak

SAKABANAKETA DATUTAN (Etxerat)

Preso politikoen sakabanaketa:

700 EUSKAL PRESO POLITIKO baino gehiago daude eta horietatik 24 bakarrik daude Euskal Herriko espetxeetan.

Istripuak: sakabanaketa hasi zenetik 14 PERTSONA dira dagoeneko errepidean bizi galdu dutenak. 2003an 23 Istripu izan zituzten senideek eta 3 pertsona hil ziren.

Kostu ekonomikoa: familiak bakoitzak batzbestek 1.153 euro inguru gastatzen ditu hilean eta 13.836 EURO URTEAN.

Senideen joan etorriak: Euskal presoek senideek ASTEAN egiten dituzten kilometroak MUNDUARI 20 BUELTA ematea bestekoak dira.

ixten ibiltzen da mamorruak sartu ez dakizkixon". Gutuna bidali eta hitz bat bera euskeraz idatzi ezker, bi hilabete beranduago jasotzen du gutuna. Larunbatetan bisitan doazenean, ostiral gauean irten Zumarragatik eta igande eguerdirako bueltatzen dira. Sarritan bis a bisak aste barruan jartzen dizkio- te eta senideek lana utzita joan behar izaten dute bisitan.

"Hamar hilabete inguru da Lurdes isolamenduan dago- ela, egunean bi orduz ater- ratzen dute bakarrik"

Lurdes Txurrukarena da be- harbada egoerarik gogorrena. Lehe- nengo graduan daukate Huelvako es- petxean eta 10 hilabete inguru da egun osoz bere zeldan sartuta daukatela. Preso sozialek debekatuta daukate be- rarekin hitz egitea eta egunean bi or- duz ateratzen dute patiora, bera baka- rrik. Bakardade gorrian daukate Bera da Huelvako espetxean dagoen euskal preso bakarra. Astean bi telefono dei ditu eta erderaz hitz egin behar izaten du funtzionario bat ondoan daukala, euskaraz hitz bat egin ezker komuni- kazioa eteten diote. Ez du kirola edo beste ezer egiteko aukerarik ere.

Anjel Murgoitio Alcalá Mecoko gartzelan dago, Madrilen. Alcalá Mecó oso masifikatuta dago eta ziegak per- tsona bakarrarendako eginda dauden arren bi pertsona egoten dira zelda ba- koitzean. Goizeko 9etatik 10etara dau- kate dutxatzeko ordua, hamar dutxa daude eta ordubetean 200 pertsonak dutxatu behar izaten dute batera.

"Anjel Alcalá Mecon dago eta ziegak pertsona baka- rrarendako diren arren binaka daude"

Regina Maiztegi da espetxean denbora gutxien daraman preso. As- tean bi telefono dei egiteko aukera ematen diote, berez 9 minutukoak omen dira baina sarri izaten dira mo- tzagoak. Soto del Realgo gartzela oso masifikatua dago eta binaka daude oso zelda txikietan. Orainarte bidalita- ko gutunak hilabetera heldu zaizkio. Oraindik ez diote lagunak bisitan joan ahal izateko instantziarik egin eta seni- deak bakarrik joaten dira. Azken bis a bisa aste barruan jarri diote eta seni- deek lana utzita joan behar izan dute bisitan.

Soraluzeko 4 preso politikoak Espainiar Estatuko 4 gartzeletan sakabanatuta daude.



Pedro Jose Etxeberria



1. CASTELLONEN
Pedro Jose Etxeberria Guardia Zibilak atxilotu zuen Soraluzen bere gurasoen etxean 1.989ko mar- txoaren 16an. 48 Urte ditu eta

15 urte daramatza gartzelan. Oraindela 2 urte zigorraldi osoaren _ bete zituen eta kalean behar luke. Epaileek ETako kide izatea leporatu zioten. Cuencako, Malagako, Valenciako, Ibizako eta Mallorcako espetxeetan eduki dute. Soraluzetik 650 kilometrora dago.

Lurdes Txurruka



2. HUELVAN
1995ean atxilotu zuen Ertzantzak Loiuin. Atxiloketa unean izandako tiroketan bere mutil laguna Juan Irazabalbeitia

"Txorta" hil zen. Berak ere bala bat jaso zuen eta eritetxean egon ondoren espetxeratu zuten. 42 Urte ditu eta 9 daramatza espetxean. Madrilgo, Valentziako eta Avilako espetxeetan eduki dute. Soraluzetik 1.100 kilome- trotara dago, isolamendu egoeran.

Anjel Murgoitio



3. ALCALA MECON (Madrid)
2001Eko urria- ren 17an atxilo- tu zuen Guardia Zibilak Soraluzen, goi- zaldeko ordu- biak aldera

etxean zegoela. 41 Urte ditu eta 2 dara- matza espetxean. Oraindik ez diote epaiketarik egin. Talde armatuari laguntza eman izana leporatu diote. Herritik 500 kilometrora dago.

Regina Maiztegi



4. SOTO DEL REAL (Madrid)
Espainiar Poliziak atxilotu zuen 2003ko azaroaren 18an Sevillan, beste soraluzetar batekin batera oportetara

joanda zela. 34 Urte ditu eta 3 hilabete daramatza gartzelan. ETari lagundu izana leporatu diote. Oraindik ez daki epaiketa noiz egingo dioten. Herritik 500 kilometrotara dago.

EGOERAREN GORDINA

Etixerat osatzen duten senideek oso argi dute Espainiar Estatuak sakabanaketarekin bilatzen duena zer den, "presuak eta euren senidiak pertsona moduan desegitia da helburua, usteldu daitezela! Oso ondo pentsatutako heriotz zigor bat da. Sufrimendua eta desgastia etenik barekua da; ekonomikoa, fisikoa eta psikologikoa... lehenago edo beranduago beti erortzen da batenbat!".

“ Sufrimendua eta desgastia etenik barekua da arlo guztietan ”

Orain bi urte Avilan Lurdes bisitatzera zoazela hil ziren Asier eta Iñakiren heriotzak "oso golpe gogorra" izan ziren Soraluzeako preso, senide eta lagunentzat. "Probau arte ezin dau inork jakin aste guztian lanian ibili eta ostiralian urtenda hainbeste kilometruan gabian bidian ibili biharrara zer dan". Azkenaldian, bisitak aste egunean jartzen eta lagunei bisitan joateko aukerak murrizten hasi omen dira eta horrek "oraindik gehiago larriagotzen dau bisitan juatiaren arriskua".

Erakundeen aldetik jasotzen duten tratuarekin oso minduta daude, "2. mailako hiritar sentitzen gara. Oinarrizko eskubide asko eta asko zapalduta dauzkagu, oso gauza grabiak gertatzen dira eta erakunde publikoak horren aurrir ez dabe ezer egiten, nahiz herritarren gehiengoak ekatu.. Komunikabidien aldetik Presoen egoerarekiko dagoen desinformazioa izugarria da. Etengabeko giza eskubidien urraketa eta giza drama izugarri bat ezkututzen da. "

Zailtasun guzti horien aurrean "Solidarioek" laguntza handia eskeintzen diete; "badago jentia bidaie-tan gidatu edo furgonetetan asteburu senidiak eruaten dituana". Andaluzian eta Katalunian bertako jen-



Leire Makinay, Arantxa Txurruka, Txaro Maiztegi eta Jose Etxeberria ondo dakite sakabanaketak eragiten duen oinaze eta sufrimenduaren berri.

**Leire Makinay
(Anjelen neskalaguna)**

"Bisita bat egitera urtetzen dogun bakoitzian etxeak eta lagunak lur jota gelditzen dira bueltauko ez naizen bildurrez"

**Arantxa Txurruka
(Lurdesen ahizpa)**

"Ezin leike esan zein gogorra dan jakitzia, han daguala urrin, bakar bakarrik gau eta egun, zer gertauko jakon jakin barik"

**Txaro Maiztegi
(Reginaren ahizpa)**

"Gu hasi barrixak gara. Bisitak aste barruan ipintzen dittue senidieri min egiteko, horrek bizitza dana hankaz gora jartzen dotsu"

**Jose Etxeberria
(Pedro Joseraren aita)**

"Gu edadian gora goiaz. Azkenengo oin bi urte izan ginan eta polizia sartu jakun hotelian eta suiña atxilotu zeben"

dez osatutako solidarioak omen daude, bisitetan doan jendeari harrera egin eta etxeetan atsedena eskeintzen dietenak. Aurrera begira, Soraluzeako Etxerak herriko presoen egoera eta sakabanaketa salatzen jarraitzeko asmoa du. Epe motzean, herriko presoen egoeraren inguruko txosten bat prestatzeko as-

moa daukate, herriko gizarte eragileei gaia aurkeztu eta hileko azkenengo ostiralean Plaza Barrixan egiten duten elkarretaratze berezian parte hartzera gonbidatzeko. Solidarioek antolatuta, nahi duenak esaldi bat idatziz herriko presoei gutunak bidaltzeko aukera ere badago Arrano Tabernan.



Asier eta Iñaki hil zirenean "Dispersioak erahilak" lemapean egin zen manifestazio jendetsua.



Asier eta Iñakiren omenez egiten den pelotaxapelketak jende asko batu du Euskal Presoak Euskal Herriratzearen alde.



Elkartasun Kideek hainbat agerraldi egin izan dituzte herrian sakabanaketa politika salatzen.

Dantza solteko eskola herrian



Irune bera Txakarra bikotekide duela Osintxuko Kofraixetan egindako saio baten.

Irune Ariznabarreta dantzari ohiak (2 urtetik 14 urtera bitartean herririk herri ibili zen) zuzenduta, Dantza Solteko Eskola sortu berri da herrian. Irunek adierazi digunez “herrixan erakustaldixak egin eta Euskal Herriko dantza solteko txapelketean parte hartuko dabean dantzariak etaratzia litzake helburu nagusixena”. Dena dela, hasierako helburua xumeagoa da eta 4 urtetik aurrerako pertsona guztiek dute eskolan izena emateko aukera, “baita nagusixenak be”.

Eskolan Fandango eta Arin Arin dantzak landuko dituzte. Hilean 18 euroko kuota izango da eta ordutegia jendeak izena eman ahal zehaztuko dira. Eskolan izena emateko epea zabalik dago hil honen amaierarte. Izena, 635748433 mugikorrera deituta edo astelehenetik ostegunera arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara Ezozki Bideko errotondaren azpiko dantza taldeko lokalera jota eman daiteke.

PAM taldearen kontzertua Gaztetxean



Larunbat honetan, **PutoAmoak-Matematiketan** musika talde ermuarrak kontzertua eskeiniko du Gaztetxean.. Kontzertua 23:00etan hasiko da eta PAMek Gaztelupeko Hotsak disketxearekin aurkeztu berri duen “The killin’ machine” diskoko kantuak joko ditu .

Gabonak Argazkitan



Mari Domingin eta Olentzerok estu estu eginda banatu zotsezen erregalauak Udaletxepera batu ziran ume piliari. Datorren urtian, gehixao eta hobeto! (Domin eta Olen)



Errege Maguak erregaloz bete bete eginda etorri ziran, ilara luze luzia egin zeben ume daneri poztasun une bat eskeintzeko.



Elgetako Gorka Arizmendiarrera (gitarra eta abeslaria), Loiola Madera (bateria) eta Kirueta (baxua) soraluzetarrak osatzen dabe Matxura taldia. Matxurak eskeinitako kontzertuak emon zotsan amaieria Gaztetxeko hamabostaldi kulturalari. Animo gaziak, oso ondo egitten dozue eta!



RK Zuloko jaialdian sortu Stolisnaia taldeak kontzertua eskeini zuen Arranoan Do taldearen ostean. Nahiko ondo egin zeben!

Atletismoa

Azkona Gipuzkoako Txapelkun

Arrate Azkona soraluzetarrak garai-
pen bikain batekin eman dio hasiera
aurtengo denboraldiari. Joan zen aste-
buruan Donostiako Anoetako Atletismo
pistetan jokatu zen Gipuzkoako Absolu-
tu Mailako Txapelketan lehenengo pos-

tua lortu zuen, jauzi hirukoitzean 12,85
metroko jauzia egin ostean.
Arrate sasoi onean dago eta gusto-
ra. Asteburu honetan Euskadiko Txapel-
ketan parte hartuko du Anoetan.
Zorionak eta zorte on!

Kirola

Kirol koordinatzailea lanean

Aste honetan bertan hasi da lanean
Udalak lehiaketa bidez 6 hilabeteko
iraupenarekin kontratatu duen kirol ar-
duraduna. Besteak beste, Udalaren eta
Kiroldegiaren koordinazio lana, kirolde-
giko azpiegituren mantenimenduari
ardura eta eskola kirola antolatzea izan-
go dira bere lanak.

Aduna Badiola 24 urteko Ondarruta-
rra da eta "gogotsu" ekin dio lanari sora-
luzetarrei ahalik eta kirol zerbitzu ego-
kienak eskeintzeko asmoarekin.



Futbitoa

"Torpedo" k belar txarrak atera zituen



Urtarrilaren 5ean jokatu zen Kiroldegian Neguko Futbito
Txapelketako finala. Torpedo taldeak (urdin ilunez) 8 eta 6
irabazi zion Malas Hiervas taldeari. ZORIONAK!

EMAITZAK

Futbola

SORALUZE 1 - Zarautz 0 (Erre.)

Sailkapena:

13. postuan (16tik) 13 punturekin

Zestoa 3 - SORALUZE 2 (Juben.)

Hamaika bat 4 - SORALUZE 0 (Kadet.)

Esku pilota

Gipuzkoako Federatu Gabekoen Arteko
Txapelketa (Usurbil)

Calles - Azkona 22

Loiolako bikotea 08

Haritz Laskurain

- Urtarrilaren 6an Eibarren -

Etzaniz - Urberuaga 15

Atxa - Laskurain 18

- Urtarrilaren 9an -

Berraondo - Auxkin 16

Chafee - Laskurain 18

- Urtarrilaren 12an Tolosan -

Atxa - Urberuaga 13

Esnal - Laskurain 22

Erlei Txurruka

Eskukominaekin jarraitzen du.

Iñaki Jauregi

- Zaramagako Txapelketa -
(Gasteizen)

Jauregi eta Zabalak 22 eta 6 irabazi.

- Lau t'erdiko Binakako Txapelketa -

(Tolosan)

Alzugaiekin 22 eta 17 irabazi.

Trobika Torneoa

(Mungia)

Inunciagarekin 22 eta 10 irabazi.

AGENDA

Esku pilota, Usurbilen

ASTEBURUAN

Calles eta Azkona Aretxabaletako
bikotearen aurka.

LARUNBAT ARRATSALDEAN

Bergaran benjaminak eta Oñatin
alebinak jokatuko dituzte.

Futbola, Ezozin

Soraluze - Segura (Erreg.)

Soraluze - Antiguoko (Juben.)

Atletismoa, Donostian

ASTEBURUAN ANOETAN

Arrate Azkona Euskadiko Atletis-
moko Txapelketan.



SAN ANDRES

Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Jesus Bereziartua

“Lehen plazentziarrok fama haundixa genkan txistiak kontatzen”

Uff uff, zer nolako plazentziarra daukagun ale honetara, Zeinek ez dau ikusi Jesus etxafleruak jaurtitzen edo zezenetako antolakuntzan edo pandero jotzen? Ezaguna da herrixan, daukan umoriagatik eta seguru gare, plazentziatar askok eta akok gustora irakurriko dituzuela Jesus-en “sekretu”rik ezkutukuenak.

Izena, abizena eta adina.

Jesus Berzeziartua, 61 urte.

Zenbakixa, koloria, animalixa eta abestixa.

Zenbakixa 44 a , koloria urdina, ahuntza eta trikitixa.

Zela hasi dozu urte barrixa?

Nik? Primeran , purua erriaz, trankil trankil.

Eta ze eskatuko zontxake urte berri-xari?

Ba osasuna, gerrarik ez egotia, eta kartzelan darenak etxeratzia.

Zein da eguneko momenturik onena?

Telebistan partiduak botatzen dituztenian, edo ahuntzeri jaten emotera noianian be gustora ibiltzen naiz.

Gustoko menua.

Babagorrixak, odolostiakin eta sahieskixekin, baba zurixak be gustatzen jataz baina nahixao dittut gorrixak. Garbanzuak eta lentejak be jaten dittut, baina babagorrixak gustatzen jataz gehixen.

Irla batetara ze eruango zenduke?

Panderua, txistua edo soinurolia, zeozter jateko eta neska gazte bat pixkat laguntzeko.

Ze eingo zenduke miloi bat eurokin?

Anai arrabei lagundu eta nere kapritxuak bete.


Telebistako saio bat.

Pelota, trikitixa eta Goenkale. Baina gehixen gustatzen jatana da, pelota partidua eta gero boxeua ikustia.

Soraluzetarrak...

Ba kanpuan xelebriak garala diñue. Lehen plazentziarrok fama haundixa genkan txistiak kontatzen.

Ze falta jako Soraluzeri?



Bertso Begiz

Urte barrixa hasi omen dau purua erriaz, lasai. Txisteren bat be kontauko zeban bertsoan eginez alai. Osasuna eskatu, presuak etxeratu, beste gauzarik ez dau nahi. Antxumerikan dozun ez dakit baina umore ona bai!

Neko

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Jesus Bereziartua

Ba ez dakit, lanpostuak eta etxebizitzak egitten jarraitzia danok moldatzeko.

Ze euki behar dau pertsona batek zure gustokoa izateko?

Umore ona eta umiltasuna.

Kontau txiste bat.

Ba ointxe momentuan ez dakit, txisteak kontatzeko onena, jarri mahixan eta pare bat trago edatia da. Orduan urtetzen dabe txistiak eta bertsuak be bai.

IRATXO GOXOTEGIA

EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tfonoa: 943 75 13 20

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Argazki zaharra

83-84 Denboraldiko jubenil taldea

Argazki hau 1983-84 denboraldiko Soralezeko jubencil taldearek ateratakoa da. Bertan azaltzen dira, goitik hasita ezkerretik eskuinera; Remi, Zarobe (entrenatzailea), "Txiki", Pablo Galarra, "Bolintxo", Pablo, Carlos Dominguez, Pedro Cacho, Trego, Juan Andres Juan, Gorka Zubiaurre, "Cabezón", Perez, Inazio Errasti, Javi Crespo, Gorka Arriaga eta Jose Angel Cortes. Edarra hamaikakua!

Jose Berruetak etaratako argazkia, Trejok lagata.

Lehiaketa

Zer dago faltan edo zer soberan
Galipot kaleko argazki honetan?

***Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!***

DEITTU

943 75 13 04 ra

***Aurreko
alean...***



erantzuna... dorretxoaren gaineko bigarren botatxoak.

...eta irabazlea: IRANTZU BENITO

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

ayerbe

LIBURUDENDA







Tfnoa. 943 20 22 30

Zezenbide 9an Eibar

SORALUCE

Fresaketa teknologia



SORALUCE
GRUPO DANOBAT

SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

ARANE KIROLDEGIA

OSASUNA ZAINTEKO, ZATOK GUREGANA!



IKASTAROKAK:

- IGERIKETA (MAILA GUZTIAK)
- AEROBIC-A
- AGUAGYM-A
- MANTENIMENDU GIMNASIA
- QUEMACALORIAS
- STRECHING
- ...

DRAINTXE DUZU URTEKO BAZKIDETZA EGITEKO AUKERA (LANGABETU, JUBILATU ETA 16 URTETIK BEHERAKOENDAKO BEHERAPENAK).

Tel: 943 752466



EZOZIA JATETXEA

Zatok eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua eta aukera zabala kartara.

Ezoz Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE